

GARAIOLTZA AUZOKO KIROL INSTALAZIOEN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUAK ARAUPETZEKO ORDENANTZA.

1.- Ordenantzaren xedea

Ordenantza honen xedea Garaioltza auzoko kirola egiteko kirol instalazioen funtzionamendua araupetzea da.

2.- Baimendutako kirol praktikak

Honako hauek dira aurreko artikuluan aipatzen diren instalazioak:

- Pilotaleku estalia, esku-pilotan, palan, frontenisean... aritzeko
- Erabilera anitzeko pista irekia, futbitoan eta tenisean aritzeko

Instalazioak aipaturiko erabilerak ez beste batzuetarako erabiltzeko, edonola ere, Lezamako Udalaren alde aurreko baimena izan beharko da.

3.- Orduak erreserbatzeko modalitateak

Erreserbak bi motatakoak izango dira:

- a) Noizean behin eta egun eta ordu jakin batean erabiltzeko erreserba
 - b) Hiru hileroko baimenak, alde aurretik finkaturiko aldizkakotasuna izango dutenak
- Orduak erreserbatzean lehentasuna edukiko dute:
- a) Kirol taldeak eta Lezamako Eskola Publikoko taldeak, dagokion prezio publikoa ordaintzetik salbuetsita egongo direlarik.
 - b) Udalerriko Erakundeen Erregistroan izena emandako udalerriko Eskolak edo Kirol Klubak, Lezamako Udalarekin udalerriko haur eta gazteei kirol praktiketan prestakuntza emateko dagokion lankidetzaren hitzarmena ezarri dutenak.
- Erroldatuek zein erroldatu gabeek erreserbatu ahal izango dute ordua. Horretarako, 15 eguneko epea irekiko da, interesatuek erreserbatu nahi duten ordua eskatu ahal izan dezaten.
- Erroldatu gabeek tarifa ezberdina edukiko dute eta libre geratzen diren orduak soilik erreserbatu ahal izango dituzte.
- Orduaren erreserba egitean zenbait talde bat etorri gero, udalerrian erroldaturiko kide gehien dituen taldeak edukiko du lehentasuna. Egoera berean egonez gero, zozketa egingo da.
- Erreserba ordu osoka egin beharko da, eta instalazioetan bertan eskatuko da adierazitako epearen barruan. Gehienez bi orduko erreserba soilik eskatu ahal izango da.
- Erreserbak gehienez hiru hilabeteko epealdian izango du baliozkotasuna.
- Epealdi hori igarotakoan, berriro banatuko dira orduak. Horretarako, hiruhileko bakoitzaren justu aurreko hilabetean hurrengo hiruhilekorako orduak erreserbatzeko eskaera egiteko epea irekiko da, eta horrela hurrenez hurren.

Udalerrian erroldaturikoek ordu libreak noizean behin erreserbatu ahal izango dituzte gehienez astebeteko aurrerapenarekin, dagokion tarifa ordainduz.

Lezamako udalerrian erroldatu gabe daudenek, instalazioen arduradunari eskatu ondoren, noizean behin ordu libreak erreserbatu ahal izango dituzte jokatu nahi duten bakoitzean. Ordu-gordetze hori gehienez hiru egun lehenago egin ahal izango da, dagokion tarifa ordainduz.

Nolanahi ere, dagokion tarifa erreserba esleitzen den unean ordainduko da, eta haren zenbatekoa ez da itzuliko.

Instalazioetara sartzeko arduradunak, ezarritako tarifaz jabetu ondoren, ordainagiria emango du. Bertan honakoa agertu beharko da:

- a) Eskatzailearen izena eta bi abizenak; baita, dagokionean, ordezkari den Kirol Kluba ere.
- b) Etxebizitzaren inguruko datuak, telefonoa eta NANA
- c) Erabiliko den kirol instalazioa, eguna eta ordua adieraziz.

4.- Instalazioen funtzionamendu ordutegia

Instalazioak ordutegi honen arabera egongo dira irekita:

- Astelehenetik ostiralera: 16:00etatik 22:00etara
- Larunbatetan: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara
- Igande eta jaiegunetan: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara
- Kirol ekitaldiak: bukatzen diren ordura arte.

Orduak erreserbatzeko muga aipaturiko ordutegikoa izango da.

Kirol instalazioak, urtean zehar, egun hauetan ixita egongo dira:

- Urtarrilak 1, Urteberri eguna
- Urtarrilak 6, Errege eguna.
- Ostegun Santua
- Ostiral Santua
- Pasko Astelehena
- Irailak 8, Andra Mari eguna
- Abenduak 24, Gabon eguna
- Abenduak 25, Eguberri eguna.
- Abenduak 31, Gabon zahar eguna.

5.- Erreserben lehentasuna eta erabilera publikorako erreserbak

Udalak kasu bakoitzean orduak erreserbatzeko lehentasuna ezarri ahal izango du eskolakoek aprobeitza ditzaten, baita instalazioak udalerriko kirol klubek erabili ditzaten ere.

Nolanahi ere, Lezamako Udalak instalazioak beharrezkoak liratekeen orduetan edukitzeko eskumena izango du, udalaren ekimenezko kirol izaerako edo kirolaz gaindiko ekitaldi publikoak edo udalaren onespina edo baimena duen beste edozein ekitaldi ospatzeko. Horretarako, eta aldez aurretik, Udalak instalazioen arduradunari

ekitaldia ospatuko dela adieraziko dio, ordua erreserbatzeagatik kaltetu litezkeenei jakinarazteko.

6.- Erabiltzaileen betebeharrak

Izaera orokorreko beste betebeharrak batzuk alde batera utzita, erreserbaren titularra eta instalazioen erabiltzaileak behartuta daude erabilitako kirol esparrua eta aldagelak eta erantsitako instalazioak behar bezala erabiltzera. Eta guztiz debekatuta dago aldageletara janariak eta edari-ontziak sartzea; baita erretzea ere.

Guztiz debekatuta dago instalazioak gaizki erabiltzea eta, bereziki, baimenik gabe esparrua inguratzen duten hesiez haraindi joatea.

Kirol instalazioak erabiltzeari buruzko arauak ez betetzeak espediente zehatzaile bati hasiera ematea ekarri ahal izango du, eta arau-hausteak eta horiei dagozkien zehapenak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 139.etik 141.era artikuluetan agertzen direnak izango dira.